



IZARRAITZ IGERIKETA ELKARTEA

Salbe Auzoa, 13 (Udal Igerilekua)

www.izarraitzigerielkartea.com email: izarraitz.ie@hotmail.com

MASTER ETA PREMASTERRAK

Teknikoa: Iban Perez

Izarraitz I.E.ko Master eta Premaster talde teknikoaren adierazpena Izarraitz I.E.ko master eta premaster igerilariei.

Agur bat igerilari adiskidea,

Hitz hauek idazten dizkizut oraindik Gobernuak jakin gabe larunbatera begira zein muga izango dituen konfinamendua hasi genuenetik utziko digun lehen eguna izango dena pasieran edo ariketa fisikoa egiteko aukera izango duguna.

Egun asko igaro dira azken elkar aurrez-aurre ikusi genuenetik igerilekuan, orain hutsa dagoena eta hurrengo asteetan situazio berdinean jarraituko duena.

Baina txapeldun bat zara, gora beherak izan badituzu ere gogotsu ekingo diozu larunbateko egunari. Merezi duzu eta dugu.

Disfrutatzeko zenbait aholku jarraian egun horretan ez izateko inolako arazorik.

- **Lehena.** Egin kasu osasun erakundeek eta autoritateek jarritako irizpideei.
- **Bigarrena.** Erabakitzen duzunean zer egingo duzun, kontuan izan orain arte egindakoa etxean. Logika eta lotura bat izan behar du orain artekoarekin.
- **Hirugarrena.** Akitude positiboa izan eta ezarritako arauen barruan, egin gehien nahi dezuna. Kirol errendimendua alde batera utzi eta jarri bizitza aktiboa lehen planoan.

Edozein zalantza izan ezgero, badakizue non aurkitzen garen.

Agur bat eta besarkada handi-handi bat distantziatik.

Iñaki Etxeberria

Julen Esteban

Iban Perez